

Auzoko maitari koitaduak



Maitale koitaduen kronikak

Jatorrizko izenburua: *Cronache di poveri amanti*

Egilea: Vasco Pratolini

Itzultzailea: Koldo Biguri

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

Errealismo soziala landutako beste idazle batzuek ez legez, Pratolinik idazlanetan erakusten du esplotazio eta pobrezi baldintzarik latzenetan ere haren pertsonaiak gauza direla ulertzeko elkartasun kolektiboa dela bizimodu hobea lortzeko esperantza ia bakarra. Pratoliniren optimismoa bat zetorren italiar populuak liberazioaren ostean sentitzen bide zuen poz ikaragarriarekin. Eta Vascok, zelan edo hala, hori dena klase zapalduen garaipenari lotzen zion, bestela esanda, Pratolinik hain kutun zuen klase popularren bizitasuna, Bigarren Mundu Gerraondo hartan, Partidu Komunistarekin bat eginik agertzen zen.

Kronikako pertsonaiak, kokapen historikoz, 1922. urtekoak dira, baina benetan eleberrian badihardute Pratolinik 1946. urtean, liberazio ondoko urtean, langileen garaipenaz zuen sinesmenaren arabera. Beraz, benetakoak dira, sinesgarri, Faxismotik askatu ondorengo Pratoliniren berotasun eta pozkidaren arabera, baina ikuspegi historiko eta objektiboaren arabera, izaki fantastiko eta irrealak dira. Eta errealismoa lantzerakoan errealitatez kanpo egoteko gurari harexek lagundu zion, hain zuzen ere, idazleari *popolaniren* bizi jarrera osokoari eusten, haien giza arazoak aurkezten, haien barruko aitopenak hedatzen, haien beharrian eta itxaroak azaltzen. Horra hor eleberri luzeko orri aberatsetatik dabilen optimismoaren giltza.

Idazlearen lanetan alderdi soziala nekez bereizten da osagai elegiakotik. Pratolinik ezin idatz zezakeen, inondik inora, hemeretzigarren mendeko idazle errealisten antzera, ezin zituen poetika haiek, bestela baitakoan, erabili: Vascok psikoanaliaren eta dekadentismoaren oinarriak sakon eta ondo ehotu zituen. Bestalde, nobela honetan hizkuntza oraindik *koiné* literario bat da, tokian tokiko ezaugarriak iragazita daude hizkuntza erabilera ilustratu halako baten bitartez. Errealismoa ez da hainbeste igartzen, beraz, hizkuntzaren erabileran, aukera linguistikoetan.

Errealismoa agertzen da pertsonaia bakoitzak bere bizimoduarekin eta denon auzoarekin, gizartearekin eratzen duen harremanak direla bitarte. Den-denak dira errealitate berberaren aurpegi ezberdinak. Banakoaren itxaropenak eta gizartearen esperantzak bat eginik, eragile pribatuen eta gizarte joeren arteko talka dira gizarte osoaren bilgune den eleberriko auzoa eszenategi bihurtzeko baliabideak.

Idazlearen bilakabidean, errealismo hutsezko garaitik neoerrealismoaren sasoirako bidaia bat jazo zen, bigarren mugimendu honetako zinegileekin bateratsu eginiko ibilbide batean. Nolanahi ere, errealismoa da narratzaileak letrei bizigaia emateko darabilen teknika. Pratoliniren lanak, nolanahi ere, neoerrealismoaren alde on eta txar guztiak agerian jartzen ditu, garai hartako pelikulek bezalaxe.

Adituak ezin erabakita daude, oraindik, ea bera izan ote zen neoerrealismoaren idazle ikurra, eredia, ala mugimendu hura krisian jarri zuen idazlaria. Eleberrian desagertuta daude idazle dekadente burgesen

ezaugarriak: sexu obsesioa, grina ilunenganako joera, primitibotasunaren aldarrikapena, aberriaren goraiapamena, haurtzaroaren mitifikazioa.

Ikasketa arautu eta formalik ez zuen izan Pratinik; beste idazle burgesak ez bezala, autodidakta izan zen, bizi esperientzia latzek jenderik behartsuenarekin, langileekin jarri zuten harremanetan. Eta haien artean ikasi omen zuen elkartasunak zenbat balio duen eta zenbat kostatzen den.

Florentzia eternal bat da protagonista nagusia eleberrian, haren beste idazlanetan bezalaxe, faxismoa zelan sortu zen ezin hobeto azaltzeko eszenategi gertatzen zitzaion aldetik. Pertsonaiak inoiz ez daude bakarrik, bestean elkartasuna dute lagun eta konpainia. Eguneroko bizibeharraren minak, halere, ez die optimismoa zapuzten.

Koldo Biguriren itzulpena oso neurtua da, garbi-garbia, tresna egokia jatorrizkoaren oihartzuna zuzen eta artez hel dakigun; "haruntzago" eta halako zirtzilkeria batzuk bakan-bakan agertzeak ez diote batere kentzen lanaren merituari. Galduko ahal dute geranioek tristura elurra urtu osteko sasoi eguzkitsuan!